

ezagutu
dudan
umerik
ausartena



Itzulpena:
Regina Larrucea

Ilustrazioa:
Simon Swingler


desclée



edukiak

Ezagutu dudan umerik ausartena.....	01
Inoiz ere oker ez zegoen neska.....	12
Oso zorte txarreko mutila.....	24
Oso neska zakarra.....	34
Munduko talderik txarrena.....	47
Santa Clausen kasketa.....	58
Oso mutiko bihurria.....	76

ezagutu dudan umerik ausartena



Peter Mills da ezagutu dudan umerik ausartena.

Peter Mills nire anaia da.

Baina badakit ez duela ezertarako balio ni hemen Pete zein ausarta den esaten aritzea ez badut frogatzen. Eta frogatuko dut. Peteri buruzko istorio bat kontatuko dizut, istorio bikain bat. Baina, lehenbizi, zerbait azaldu behar dizut.

Gure ama eta aita banandurik daude.



Ez da ezohikoa, nonbait, baina zuri gertatu ez bazaizu, beharbada zaila irudituko zaizu ondorengo istorioaren zati batzuk ulertzea. Beraz, irudimena erabili beharko duzu, baina hori ez da hain gauza txarra.

Guztiok elkarrekin geundenean, amak eta aitak eztabaida ikaragarriak izaten zituzten. Etengabe. Eta Petek eta nik sentsazio latz bat izaten genuen. Bukatu zen sentsazio desatsegina. Amak alde egingo zuela. Edo aitak, agian. Eta sentsaziorik txarrena: beharbada ez nituela berriro ikusiko. Batzuetan zaila da niretzat gai honi buruz hitz egitea.

—Mesedez! Nahikoa da! Oso pertsona atseginak zarete, eta maite zaituztegu... zergatik zabilzate beti sesioan? —oihukatu nahi izaten nien. Baina ez nuen egiten. Negarrez hasten nintzen eta gelatik alde egiten nuen.



Petek ez zuen hori egiten. Bera han geratzen zen. Negar egin nahi zuen, baina ahal beste eusten zion. Badakizu zer egiten zuen? Amari eta aitari txisteak kontatzen zizkien barre egin zezaten. Eta horrek ez zuenean funtzionatzen (eta normalean ez zuen funtzionatzen), keinu barregarriak egiten zituen. Behin, ukondoan kolpea hartu zuen itxurak egin zituen. Pete gizajoa. Amak eta aitak barre eginez gero eztabaidatzeari utziko ziotela pentsatzen zuen.

Gero, Pete bere gelan bakarrik negar egiten entzuten nuen. Bai, Pete ezagutu dudak umerik ausartena da.

Ama eta aita banandu zirenean, ez zen Petek eta biok uste bezain txarra izan. Inondik inora ere ez. Amak eta aitak esan ziguten oso-oso maite gintuztela eta elkarrekin jarraituko genuela. Eta horixe egin dugu.



Amaren etxea eta aitarena elkarrengandik hamar minutura daude, eta denbora erdia aitarekin eta beste erdia amarekin igarotzen dugu.

Ez da lehen bezain ona; baina, esan dudan bezala, ez da hain txarra ere. Aita gaixoak amaren hutsa sentitzen du, baina ausarta izaten saiatzen da. Beno, beharbada aitagatik da Pete hain ausarta. Batzuetan amak ere aitaren hutsa sentitzen duela pentsatzen dut. Agian bera da guztion artean ausartena.

Eta horrek istorioaren hasierara narama. Denbora luzea behar izan dut hasierara iristeko, baina dena jakin behar duzu ulertzeko.

Egun batean, mutiko berri bat etorri zen eskolara. Eta berehala jakin nuen ez nuela atsegin.

Haren amak eta aitak bat-batean lortu zituzten lanpostu berriak, eta horregatik ez zen etorri gure eskolara lehenengo hiruhilekoaren erdira arte. Bruce zuen izena. Bruce handia. Eta borrokazalea zen.

Bruce handiak oso gauza argiak esaten zituen eta ergel sentiarazten gintuen. Eta orduan, barreka hasten zen eta batzuetan tu ere egiten zigun. Erantzutea bururatzen bazitzaigun, muturreko bat jotzen zigun. Eta ez zion jotzeari uzten harik eta negarrez hasten ginen arte. Etsi egin genuen seinale gisa ikusten zuen.

Ulertuko duzu zergatik ez zen nire lagunik minena. Behin, txiza egin zuen nire bazkari-kutxan. Egun hobeak izan ditut.

Brucek mundu guztia hartzen zuen menpean. Beno, Pete izan ezik. Jakina, Pete ere jipoitzen zuen.